

PRENTSA OHARRA

Bilbon, 2016ko apirilaren 29an

MILOI ERDI EURO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO IKERKETA PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO

OSALANek Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak gaur Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan aurkeztu ditu 2014-2015 deialdian diruz lagundutako bost ikerketa proiektu. Datozen asteetan emango du argitara OSALANek aurtengo urteari dagokion laguntza deialdia.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak urtero diru laguntza deialdia egiten du laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa proiektuetarako, 500.000 euroko aurrekontuarekin. SGS Tecnos, Lantegi Batuak Fundazioa, Tecnalia Research & Innovation Fundazioa, STT Ingeniería y Sistemas eta Gaiker Fundazioak aurkeztu dituzte Bilbon OSALANek emandako diru laguntzarekin aurrera eramandako proiektuak.

- Nanoteknologiak, zahartze prozesuak eta arriskuen prebentzioa

Nanomaterialen kasuan, hauen toxikotasun mailari buruzko ezagutza nahikoa falta da, ein batean, arriskuen ebaluaketarako berariazko sistemarik ez dagoelako. Dena den, prebentzio araudiak neurri prebentiboak arriskuaren arabera lehenestea jasotzen du. Ildo honetatik garatu du **Gaiker Fundazioak** bere proiektua, arnasketa bidez barneratutako nanomaterialen arrisku maila ebaluatzeko tresna bat garatuz.

Inertzia sensoreak erabiliz, muskulu eta giharretako trastornoen ebaluaketa azkarra egiteko tresna garatu du **STT Ingeniería y Sistemas**-ek. Helburua analisi biomekatiko, eramangarri eta kablerik gabekoa egitea da, lanpostuetako aktibitateen ebaluaketa denbora errealean egitea ahalbidetzen duena.

Lantegi Batuak Fundazioak mugikortasun gida garatu ezintasuna duten langileek egiten dituzten in itinere eta misioko desplazamenduetarako.

SGS-Técnos-ek prebentzio lanetan zahartze prozesu naturala arrisku faktore gisa hartua izan daiteken aztertze ikerketa lana egin du osasun sektorea oinarri hartuta.

Tecnalia Research & Innovation Fundazioaren proiektuak laneko segurtasun eta osasun sistemen kudeaketa hobetzea du helburu. Proiektu hau Saf€ra partzuergo europarraren baitan aurrera eraman da. Saf€ra partzuergoko kidea da OSALAN eta helburua, industria segurtasunean ikerketa bultzatzea da; ikuspegi proaktibo, berritzaile eta diziplina anitzetatik begiratuta, europar industriaren konpetibitate maila haunditzeko eta hazkunde jasangarrian oinarrituta.